



**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN
(SEGURTASUN SAILAREN BIDEZ)
ETA «EUSKALEGURALDIA»
INFORMAZIO
METEOROLOGIKOAREN
ELKARTEAREN ARTEKOA,
INFORMAZIO METEOROLOGIKO
OROKORRAREN, LARRIALDIEN ETA
BABES ZIBILAREN ARLOKOA.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN
ENTRE LA ADMINISTRACIÓN
GENERAL DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI, A TRAVÉS
DEL DEPARTAMENTO DE
SEGURIDAD, Y LA ASOCIACIÓN DE
INFORMACIÓN METEOROLÓGICA
EUSKALEGURALDIA/ INFORMAZIO
METEOROLOGIKOAREN ELKARTEA,
EN MATERIA DE INFORMACIÓN
METEOROLÓGICA GENERAL Y DE
EMERGENCIAS Y PROTECCIÓN CIVIL.**

Vitoria-Gasteizen,
elektronikoaren datan.

Sinadura

Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma
electrónica

BILDU DIRA

Alde batetik, Josu Iñaki ERKOREKA
GERVASIO jauna, Jaurlaritzako
lehenengo lehendakariorde eta
Segurtasuneko sailburua,

Eta bestetik, Antonio DOMINGUEZ
FUENTE jauna, Asociación de
Información Meteorológica
EuskalEguraldia/ Informazio
Meteorologikoaren Elkarteko
Presidentea.

ESKU HARTU DUTE

Lehenengoak, lehendakariaren 2020ko
irailaren 7ko 20/2020 Dekretuak egindako
izendapenaren arabera, Euskal
Autonomia Erkidegoaren izenean eta
hura ordezkatzuz.

Eta bigarrenak, EuskalEguraldia
Informazio Meteorologikoaren Elkarteko
lehendakari gisa, elkarte horren izenean
eta hura ordezkatzuz, elkartearen
estatutuek ematen dizkieten eskumenak
erabiliz.

Bi aldeek gaitasun eta legitimazio nahikoa
aitortzen diote elkarri lankidetzaz-

REUNIDOS

De una parte, D. Josu Iñaki ERKOREKA
GERVASIO, Vicelehendakari Primero y
Consejero de Seguridad del Gobierno
Vasco,

Y de otra, D. Antonio DOMINGUEZ
FUENTE, Presidente de la Asociación de
Información Meteorológica
EuskalEguraldia/ Informazio
Meteorologikoaren Elkartea.

INTERVIENEN

El primero, en virtud del nombramiento
efectuado por el Decreto 20/2020, de 7 de
septiembre, del Lehendakari, interviene
en nombre y representación de la
Comunidad Autónoma de Euskadi.

Y el segundo, en calidad de Presidente de
la Asociación de Información
Meteorológica EuskalEguraldia/
Informazio Meteorologikoaren Elkartea,
que actúa en nombre y representación de
dicha entidad en virtud de las
competencias que le atribuyen los
Estatutos de la misma.

Ambas partes se reconocen mutuamente
capacidad y legitimación bastante para



hitzarmen hau sinatzeko eta bertan ezartzen diren baldintzetan behartuta geratzeko, eta, horretarako, honako hau

suscribir el presente Convenio de Colaboración y para quedar obligadas en los términos que en él se establecen, y, a tal fin,

Era berean, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren arabera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari (aurrerantzean, LAEMZ) dagokio Segurtasun Sailaren misio eta eskumenak egikaritzea eta betetzea, LKLTBn eta haren araudi osagarrian xedatutakoaren ondorioz.

Asimismo, conforme al Decreto 6/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad, corresponde a la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (en adelante, DAEM) la ejecución y cumplimiento de las misiones y competencias del Departamento de Seguridad derivadas de lo dispuesto en el TRLGE y su normativa complementaria.

Hirugarrena.- 2010eko urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuan (Herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa), Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina garatzen da, (otsailaren 26ko 30/2019 Dekretuak aldatua). Sistema horren araubide juridikoa euskal administrazio publikoek egindako babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko plan, programa eta jardueren garapenean parte hartzen duten boluntariotzako entitate eta organizazio publiko zein pribatuei aplikatuko zaie.

Tercero.- Que el TRLGE se encuentra desarrollado en el Decreto 24/2010, de 19 de enero, sobre la participación voluntaria de la ciudadanía en el sistema vasco de atención de emergencias, modificado por el Decreto 30/2019, de 26 de febrero, cuyo régimen jurídico es de aplicación a aquellas entidades y organizaciones de voluntariado, públicas o privadas, que participen en el desarrollo de los planes, programas y actividades de protección civil y atención de emergencias elaborados por las Administraciones públicas vascas.

Laugarrena. - EuskalEguraldia Informazio Meteorologikoaren Elkarte (aurrerantzean, Elkarte) irabazi-asmorik gabeko elkarrekin da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, 2019ko azaroaren 19an emandako ebazpenaren arabera (erregistro-zenbakia: AS/G/22910/19).

Cuarto. - Que la Asociación de Información Meteorológica EuskalEguraldia/ Informazio Meteorologikoaren Elkarte (en adelante, la Asociación) es una Asociación sin ánimo de lucro que figura inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, en virtud de Resolución dictada en fecha 19 de noviembre de 2019, con el número de registro AS/G/22910/19.

Elkarrekin horren estatutu-helburuen artean dago gertatzen ari diren edo gerta daitezkeen egoera meteorologikoei buruzko informazioa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteari, enpresei eta administrazioei, sare

Entre los fines estatutarios de esta Asociación figura la información a la sociedad, empresas y Administraciones de la Comunidad Autónoma Vasca a través de las redes sociales e internet sobre situaciones meteorológicas, tanto



sozialen eta Interneten bidez; alegia, bai egoera meteorologiko ohikoak, bai aparteko egoera bortitzak, bai eta egoera horiek eragiten dituzten arriskuei, mehatxuei eta arazoei buruzko informazioa ere. Helburuen artean agerida, halaber, meteorologiako, klimatologiako eta haiei lotutako zientzietako ezagutza tekniko-zientifikoa haztea.

Bosgarrena. – Helburu horiek lortzeko, Elkarrekin, bere estatutuetan adierazten denaren arabera, honako informazio-jarduera hauek egiten ditu:

- Lankidetzan aritzea eta hitzarmenak egitea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarekin eta babes zibilaren, larrialdien, meteorologiaren, klimatologiaren eta antzeko zientzien arloan eskumena duten beste administrazio batzuekin.
- Sare sozialen bidez, gertatzen ari diren egoera meteorologikoen berri ematea, testu, grafiko, argazki eta bideoekin.
- Fenomeno meteorologiko kaltegarriei, larrialdiei, hondamendiei eta katastrofeei buruzko informazioa monitorizatzea eta zabaltzea, toki- eta autonomia-mailan.
- Gizartearen autobabesa sustatzea, dauden arriskueta egokitutako gomendioen bidez.
- Meteorologiaren, klimatologiaren eta haiekin lotutako zientzien arloko hitzaldiak,

habituales como adversas, que se están produciendo o se pueden producir, así como de los riesgos, amenazas y problemáticas que éstas generan. Figura, igualmente, el aumento del conocimiento técnico-científico en meteorología, climatología y ciencias relacionadas.

Quinto. - Que, para la consecución de dichos fines, según se señala en sus Estatutos, la Asociación lleva a cabo las siguientes actividades de información:

- Colaborar y convenir con el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y otras Administraciones competentes en materia de Protección Civil, Emergencias, Meteorología, Climatología y ciencias afines.
- Informar con textos, gráficos, fotografías y vídeos de situaciones meteorológicas que se estén produciendo a través de redes sociales.
- Monitorizar y difundir información de fenómenos meteorológicos adversos, emergencias, desastres y catástrofes, a nivel local y autonómico.
- Fomentar la autoprotección de la sociedad, a través de recomendaciones adecuadas a los riesgos existentes.
- Organizar charlas, cursos, conferencias y encuentros, en materia de Meteorología,

- ikastaroak, hitzaldiak eta topaketak antolatzea.
- Segurtasun Sailak meteorologiaren, klimatologiaren, babes zibilaren, larrialdien eta lotutako arloen inguruan sustatutako ikastaroak jasotzea.
- Informazio meteorologikoaren eta eguraldi gogorrari buruzko informazioaren arloan azterlanak, aholkularitza eta zerbitzuak sortzea edo sustatzea.
- Climatología y ciencias relacionadas.
- Recibir cursos promovidos por el Departamento de Seguridad en materia de Meteorología, Climatología, Protección Civil, Emergencias y áreas relacionadas.
- Generar o fomentar estudios, asesoría y servicios en temas de información meteorológica y tiempo severo.

Seigarrena.- Bi aldeek parte hartzen dute Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemari, bakoitzak bere eskumen eta erantzukizunen neurrian. Sistema hori 2017ko apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuan (Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu batekina onartzen duena) aurreikusitako prebentzio- eta plangintza-printzipio eta -tresnek osatzen dute, bai eta 1997ko ekainaren 24ko 153/1997 Dekretukoek ere («Larrialdiei aurre egiteko bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena), zeina 2015eko urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatu baitzuen («Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzon Euskadiko Herri Babeseko Planari berrazterketa berezi bat egitea onartzen duena).

Kasu honetan, haien esku hartzea meteorologiari eta fenomeno meteorologiko kaltegarriei dagokienez zehazten da.

Zazpigarrena. – LAEMZk kontu bat du Twitter sare sozian (@Euskalmet), meteorologiari eta haren eraginei buruzko informazio emateko. Herritarrei informazio hori emateko garaian, irizpide hauek baliatzen ditu:

Sexto.- Que ambas partes participan, en la medida de sus competencias y responsabilidades, en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil, constituido por el conjunto de principios e instrumentos de prevención y planificación previstos en el Decreto Legislativo 1/2017, de 27 abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Gestión de Emergencias y su desarrollo por el Decreto 153/1997, de 24 de junio, que aprueba el Plan de Protección Civil de Euskadi “Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea- LABI” y se regulan los mecanismos de integración del Sistema Vasco de Atención de Emergencias y Protección Civil, modificado por el Decreto 1/2015, de 13 de enero, por el que se aprueba la revisión extraordinaria de dicho Plan.

En este caso, su participación se concreta en lo que a meteorología en general y fenómenos meteorológicos adversos se refiere.

Séptimo. - Que la DAEM dispone de una cuenta en la red social Twitter (@Euskalmet), cuyo fin es proporcionar información sobre la meteorología y sus impactos, informando a través de ella a la población mediante los siguientes criterios:



- Autobabesa sustatzea informazioaren bidez, herritarrei mezuak zabalduz autobabeserako neurri egokiak eskatzen dituzten egoeretan.
- Gertakari batek eragindako pertsonengandik informazioa jasotzea, egoera ezagutzeko eta ondorioak ebaluatzeko prozesuak hobetuz, larrialdietako kudeatzaileek hobeto har ditzaten beren erabakiak.
- Inpaktu meteorologikoei buruzko informazioa gardentasunez eta fidagarritasunez egiaztatzea eta ofizialtzea, nahi gabeko ondorioak eragin ditzaketen gezurrak eta zurrumurruek saihestuz.
- Hurbiltasuna eta adeitasuna lortzea, Administrazioa herritarrengana hurreratuz, behar den informazioa eta ezagutza erraztasunez eta modu atsegin batez emanez.
- Fomentar la autoprotección mediante la información, difundiendo mensajes a la población en situaciones que obliguen a adoptar las consiguientes medidas de autoprotección.
- Recibir la información de las personas afectadas por un suceso, mejorando los procesos de conocimiento de la situación y evaluación de las consecuencias que permitan una mejor toma de decisiones a los gestores de las emergencias.
- Confirmar y oficializar la información sobre los impactos meteorológicos, con transparencia y fiabilidad, evitando bulos y rumores que puedan producir consecuencias indeseadas.
- Conseguir cercanía y cordialidad, acercando la Administración a la ciudadanía, facilitando la información y el conocimiento necesarios de una forma fácil y amable.

Zortzigarrena. – Elkarteko kideak meteorologiaren arloko boluntario digitalak dira, Euskadiko lurralde osoan ezarrita daudenak, eta modu altruistan ematen diote laguntza sare sozialetan (twitter@euskaleguraldia, Facebook) eta Interneten EUSKALMET Meteorologiako Euskal Agentziari (EUSKALMET LAEMZren mendean dago), egoerak denbora errealean egiaztatzen lagunduz eta, era berean, zurrumurruek eta gezurrak detektatuz eta neutralizatuz, informazio ofiziala eskuragarriago eta fidagarriago eginez.

Bederatzigarrena. – Elkarrekin Euskal Autonomia Erkidegoan egiten du lan, meteorologiak eragindako larrialdietan informazio ofiziala eta egiaztatua zabaltzen lagunduz, babes zibilak gizartean meteorologia kaltegarriaren aurrean duen garrantziaz autobabesa eta

Octavo. - Que los miembros de la Asociación son voluntarios digitales en materia meteorológica, implantados en todo el territorio de Euskadi, que, de forma altruista, dan soporte y apoyan a la Agencia Vasca de Meteorología EUSKALMET, dependiente de la DAEM, en las redes sociales (Twitter @euskaleguraldia, Facebook) e Internet, ayudando a confirmar las situaciones en tiempo real, permitiendo, así mismo, detectar y neutralizar bulos y rumores, haciendo más accesible y fiable la información oficial.

Noveno. - Que la Asociación desarrolla su trabajo en el País Vasco apoyando la divulgación de información oficial y contrastada en las emergencias producidas por la meteorología, así como el fomento de la autoprotección y



kontzientziazioa sustatuz, eta meteorologiaren eta harekin lotutako zientzien ezagutza zientifikoa bultzatuz.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauen arabera:

concienciación sobre la importancia de la Protección Civil en la sociedad frente a la meteorología adversa, y fomentando el conocimiento científico de la meteorología y ciencias relacionadas.

Atendiendo a todo lo expuesto, ambas partes suscriben el presente Convenio conforme a las siguientes,

KLAUSULAK

ESTIPULACIONES

Lehenengoa.- Xedea

Primera. - Objeto

1. Hitzarmen honen xedea Segurtasun Sailaren eta Elkartearen arteko lankidetzaz esparru orokorra ezartzea da, fenomeno meteorologiko kaltegarriek eragindako larrialdi-egoeretan informazioa ahalik eta ondoen erabiltzeko.
2. Aurrekoa alde batera utzi gabe, beharrezkotzat jotzen da autobabesarekin, arriskuen kudeaketarekin, larrialdi meteorologikoetako herritarren segurtasunarekin eta meteorologia-arloetako eta haiekin lotutako zientzietako ezagutza areagotzearekin zerikusia duten dibulgazio-, prestakuntza-, kudeaketa- eta ikerketa-ekintzak egitea, herritar guztien onerako izan daitezen.
3. Beraz, informazio meteorologikoa eta haren eraginak ahalik eta ondoen erabiltzera bideratutako jarduera bateratuak arautzen dituzten prozedurak finkatu nahi dira, batez ere larrialdi edo arrisku kolektibo larriko egoeretan,
1. El presente Convenio tiene por objeto establecer el marco general de colaboración entre el Departamento de Seguridad y la Asociación, orientado especialmente a conseguir una óptima utilización de la información ante situaciones de emergencias provocadas por fenómenos meteorológicos adversos.
2. Sin perjuicio de lo anterior, se considera necesaria la realización de acciones de divulgación, formación, gestión e investigación relacionadas con la autoprotección, con la gestión de riesgos, con la seguridad ciudadana en emergencias meteorológicas, y con el aumento del conocimiento en las áreas meteorológicas y ciencias relacionadas, de forma que redunden en beneficio de la ciudadanía en general.
3. Se trata, por tanto, de consolidar los procedimientos reguladores de las actuaciones conjuntas encaminadas a conseguir una óptima utilización de la información meteorológica y sus impactos, especialmente ante las emergencias o situaciones de



hondamendietan edo lazeria publikoetan.

grave riesgo colectivo, catástrofe o calamidad pública.

Bigarrena. – Aplikazio-eremua

Hitzarmen honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

Segunda. - Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del presente Convenio es la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hirugarrena. – Programa eta jarduera bateratuak koordinatzea

Hitzarmen honen xede diren programak LAEMZk koordinatuko ditu, eta gerora ezartzen den programan Elkarteak jarritako bitartekoak eta baliabideak Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari sartu ahal izango dira, LAEMZren Meteorologia Zerbitzuaren bidez.

Tercera. - Coordinación de Programas y Actividades conjuntas

La coordinación de los programas objeto del presente Convenio corresponderá a la DAEM, permitiendo que los medios y recursos aportados por la Asociación al programa concreto que se establezca puedan integrarse en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias a través del Servicio de Meteorología de la DAEM.

Laugarrena. – Egin beharreko jarduketak

1. Meteorologiak eta antzeko zientziek eragindako larrialdien arloko lankidetzak garatzeko jarduerak egingo dituzte LAEMZk eta Elkarteak.
2. Alde bakoitzak garatu beharreko ekintzak zehaztuko dira, bereziki helburu hauek dituztenak:
 - Autobabesaren prestakuntza eta sustapenean, arriskueta eta larrialdietan sakontzea, fenomeno meteorologikoko kaltegarriei dagokienez.
 - Unean-unean gertatzen diren egoera meteorologikoen berri ematea sare sozialen bidez, testu, grafiko, argazki eta bideoen bitartez.

Cuarta. - Actuaciones a realizar

1. La DAEM y la Asociación establecerán las actuaciones a realizar, en las que se desarrollará la colaboración en materia de emergencias producidas por la meteorología y ciencias afines.
2. Se concretarán especialmente las acciones a desarrollar por cada una de las partes, para:
 - Profundizar en la formación y fomento de la autoprotección, los riesgos y las emergencias, en relación con los fenómenos meteorológicos adversos.
 - Informar, a través de redes sociales, con textos, gráficos, fotografías y vídeos de situaciones meteorológicas que se estén produciendo.

- Fenomeno meteorologiko kaltegarriei, larrialdiei, hondamendiei eta katastrofeei buruzko informazioa monitorizatzea eta zabaltzea, toki- eta autonomia-mailan.
- Meteorologiaren, klimatologiaren eta haiekin lotutako zientzien arloko solasaldiak, ikastaroak, hitzaldiak eta topaketak antolatzea.
- Elkartearen eta LAEMZren artean proiektu espezifikoak sustatzea.
- Sortzen diren ohiko larrialdiei buruzko informazioa zabaltzea. Horretarako, Elkartek konpromisoa hartzen du LAEMZk emandako abisu, alerta eta alarmen hedapen bakarra egiteko, herritarrak ez nahasteko. LAEMZk konpromisoa hartzen du Elkartearekin arreta-lerro "bero" bat mantentzeko, informazio zehatz baten inguruan izan ditzakeen zalantzak argitzeko.
- Meteorologia kaltegarriari eta haren inpaktuei buruzko informazio okerrak, gezurrak eta zurrumurruak zuzentzen laguntzea, egoera horietan herritarrei ematen zaien informazioa distortsionatu badezakete.
- Gertaera meteorologiko jakin bati buruz sare
- Monitorizar y difundir información de fenómenos meteorológicos adversos, emergencias, desastres y catástrofes, a nivel local y autonómico.
- Organizar charlas, cursos, conferencias y encuentros, en materia de Meteorología, Climatología y ciencias relacionadas.
- Promocionar proyectos específicos entre la Asociación y la DAEM.
- Divulgar la información relativa a las emergencias ordinarias que se produzcan, para lo cual la Asociación se compromete a la difusión única de los avisos, alertas y alarmas emitidas por la DAEM, a fin de no confundir a la población. La DAEM se compromete a mantener una "línea caliente" de información con la Asociación a fin de aclarar cuantas dudas pueda tener respecto de una información concreta.
- Colaborar en la corrección de informaciones incorrectas, bulos y rumores en materia de meteorología adversa y sus impactos, que puedan distorsionar la información a la población en dichas situaciones.
- Monitorizar las informaciones e imágenes que sobre un determinado suceso meteorológico



sozialetan zirkulatzen duten informazioak eta irudiak monitorizatzea, eta benetakoak diren egiaztatzea.

- Jarduera- eta lankidetzadierazleen kontrola eramatea, hala nola @Euskalmet eta @112_SOSDeiak kontuetatik birtxiokatutako txioen kopurua, egindako ikastaroak edo antolatutako ekitaldiak.

circulen por las redes sociales, comprobando su certeza.

- Llevar un control de indicadores de actividad y colaboración, tales como, número de tuits retuiteados desde las cuentas @Euskalmet y @112_SOSDeiak, cursos realizados o eventos organizados.

Quinta. - Programas de formación y perfeccionamiento

Bosgarrena. – Prestakuntza- eta hobekuntza-programak.

1. LAEMZk doako sarbidea emango die Elkarteko kideei, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak garatutako meteorologia-jarduerarekin lotuta dauden arloei buruz egiten dituen ikastaroetara, interesgarritzat jotzen badira.
2. LAEMZk aukera emango die Elkarteko kideei Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren simulakro interesgarri edo esanguratsuetan parte hartzeko, behatzaile gisa, betiere garatzen den jarduera meteorologikoarekin bat badatoz.
3. Era berean, LAEMZk Elkarteari eskatu ahal izango dio beraren lan-eremuko simulakroetan parte hartzeko.

1. La DAEM facilitará a los miembros de la Asociación el acceso gratuito a los cursos que realice la Academia Vasca de Policía y Emergencias, sobre las áreas que se consideren de interés y estén relacionados con la actividad meteorológica desarrollada.
2. La DAEM facilitará el acceso a los miembros de la Asociación, en calidad de observadores, a los simulacros que se realicen de interés o de envergadura en la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que sean pertinentes con la actividad meteorológica desarrollada.
3. Así mismo, la DAEM podrá solicitar la participación de la Asociación en los simulacros dentro de su ámbito de trabajo.

Seigarrena. – Jarduerak egiteko behar diren baliabideak finantzatzea.

Sexta. - Financiación de los recursos necesarios para el desempeño de actividades.

1. El Departamento de Seguridad se compromete a incluir en los



1. Segurtasun Sailak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan Elkartearen jarduerak laguntzeko dagokion aurrekontu-partida sartzeko.
 2. Dirulaguntza emateko, aldez aurretik proiektu bat eta jardueren eta inbertsioen aurrekontu bat aurkeztu beharko dira dagokion ekitaldi ekonomikorako. Proiektu eta aurrekontu horiek hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen direnetik aurrera. Hitzarmenaren indarraldiko lehen urtean, ondorio ekonomikoek kontuan hartuko dituzte aurrekontu-ekitaldian gauzatutako jarduerak.
 3. Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, dagokion proiektua onartu ondoren.
 4. Urteko dirulaguntza justifikatzeko, Elkartek memoria bat aurkeztuko dio Segurtasun Sailari, urteko lehen hiruhilekoan. Memoria horretan, aurreko ekitaldiko dirulaguntzaren aplikazioa zehaztuko da, eta dagozkion fakturak edo kontabilitateko justifikazioak erantsi beharko dira.
- Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi la correspondiente partida presupuestaria para apoyo a las actividades de la Asociación.
2. El otorgamiento de la subvención estará condicionado a la previa presentación de un proyecto y presupuesto de actividades e inversiones para el ejercicio económico correspondiente. Dicho proyecto y presupuesto deberá presentarse en el plazo de tres meses desde la aprobación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En el caso del primer año de vigencia del convenio, los efectos económicos contemplarán las actuaciones ejercitadas en el ejercicio presupuestario.
 3. El otorgamiento de la subvención se realizará en un único pago tras la aprobación del proyecto correspondiente.
 4. Para la justificación de la subvención anual, la Asociación presentará al Departamento de Seguridad, dentro del primer trimestre del año, una memoria en la que se especifique la aplicación de la subvención del ejercicio anterior, adjuntándose obligatoriamente las correspondientes facturas o justificaciones contables.

Séptima. - Concurrencia de convenios

Zazpigarrena. – Hitzarmenak aldi berean gertatzea

1. Elkartek lankidetzeta-hitzarmenak egin ahal izango ditu beste entitate publiko edo pribatu batzuekin, betiere hitzarmen
1. La Asociación podrá realizar convenios de colaboración con otras entidades públicas o privadas, siempre que no contravengan lo estipulado en el presente Convenio.



honetan ezarritakoa urratzen ez badute.

2. Elkarreak sinatutako hitzarmenen kopia bat emango dio larrialdietan eta babes zibilean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari.

2. La Asociación aportará una copia de los convenios firmados a la Dirección del Gobierno Vasco competente en emergencias y protección civil.

Octava. - Comisión Mixta de Seguimiento

Zortzigarrena. – Jarraipen Batzorde Mistoa

1. Hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde misto bat eratuko da, Elkarteko bi ordezkari eta LAEMZko bi ordezkari osatua.
2. Batzordeari dagokio hitzarmena interpretatzean sortzen diren zalantzak ebaztea, hitzarmena betetzean sor daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren martxa berrikustea eta, hala badagokio, hura hobetzeko proposamenak egitea.
3. Batzordea urtean behin, gutxienez, bilduko da, baita aldeetako edozeinek eskatu ondoren ere.

1. Se constituirá una Comisión Mixta de Seguimiento del Convenio, integrada por dos representantes de la Asociación y dos representantes de la DAEM.
2. Corresponde a esta Comisión resolver las dudas que surjan en su interpretación, solventar las posibles discrepancias que puedan sobrevenir en su ejecución, revisar la marcha del Convenio y, en su caso, elaborar las propuestas tendentes a su mejora.
3. Esta Comisión se reunirá como mínimo una vez al año, y se podrá reunir previa solicitud de cualquiera de las partes.

Novena. - Régimen e interpretación del Convenio

Bederatzigarrena. – Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa

1. Hitzarmen hau administratiboa da, administrazio publiko batek eta zuzenbide pribatuko subjektu batek sinatzen baitute. Beraz, lege-arau hauetan xedatutakoaren mendean dago: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 2017ko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. Kapituluak, eta Diru-laguntzei

1. El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, al suscribirse entre una Administración Pública y un sujeto de derecho privado. Se rige, por tanto, por lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y el capítulo XIII del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, así como por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

2. Aldeen artean sor daitezkeen eztabaidak, Jarraipen Batzordeak konpontzen ez baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira.

2. Las controversias entre las partes que pudieran surgir, y no sean resueltas por la Comisión de Seguimiento, se someterán al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Décima. - Vigencia e incumplimiento.

Hamargarrena. – Indarraldia eta ez-betetzea.

1. Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.
2. Nolanahi ere, dagokion urteko dirulaguntza izenduna emateko (lehenengoa 2022ko aurrekontu-ekitaldiari dagokiona), aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.
3. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea. Hala ere, sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzen badute, hitzarmena suntsiarazi egingo da.
4. Aldeetako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzarmenaren suntsiarazpena eskatzeko. Ez-betetze horren berri eman beharko zaio Jarraipen Batzordeari, eta hark gehienez ere 10 eguneko epean ebatzi beharko du egiteko dauden jarduerak aldeztu aurretik deuseztatzea bidezkoa den.

1. El plazo de vigencia del presente convenio es de cuatro años, contados a partir del día de su firma.
2. En todo caso, el otorgamiento de la subvención nominativa anual que corresponda, siendo la primera la correspondiente al ejercicio presupuestario de 2022, estará condicionado a la existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente.
3. En cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta otros cuatro años adicionales, o bien su extinción. No obstante, el acuerdo unánime de todos los firmantes será causa de su resolución.
4. El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para solicitar la resolución del Convenio. Dicho incumplimiento se deberá poner en conocimiento de la Comisión de Seguimiento, que deberá resolver, en el plazo máximo de 10 días, sobre la procedencia de la rescisión anticipada de las actividades pendientes de realización.

Undécima. - Resolución del Convenio



Hamaikagarrena. - Hitzarmena suntsiaraztea

Hitzarmen hau suntsiarazi ahal izango da honako arrazoi hauetako bat gertatzen bada:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Aldeen adostasuna.
- c) Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- d) Epaileak hitzarmena deuseza dela adieraztea.
- e) Aurrekoetz gain, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

Hamabigarrena. - Datuen babesa

Hitzarmen honetan xedatutakoa betez, aldeek beren artean edo beste hirugarren bati datuak tratatu, laga edo jakinarazten dizkieten kasu guztietan, aldeek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra [2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa] eta Datu Pertsonalak babesteko eta Datu Digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa bete beharko dituzte

Eta aurreko testuarekin ados daudela adierazteko, parte-hartzaileek elektronikoki sinatzen dute hitzarmen hau.

El presente Convenio podrá resolverse por la concurrencia de cualquiera de las siguientes causas:

- a) El transcurso del plazo de vigencia del Convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) El acuerdo de las partes.
- c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos.
- d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del Convenio.
- e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el Convenio o en otras leyes.

Duodécima. - Protección de datos

En todos los supuestos en los que pueda darse el tratamiento, la cesión o la comunicación de datos, entre sí o a un tercero, en ejecución de lo dispuesto en este Convenio, las partes se someten a lo establecido en el Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento (UE) 2016/679 de Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016), en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los Derechos Digitales, y a la demás normativa vigente en materia de Protección de Datos Personales.

Y en prueba de conformidad con el texto que antecede, las partes intervinientes firman electrónicamente el presente convenio,

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

ANTONIO DOMÍNGUEZ FUENTE

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde
eta segurtasuneko sailburua.

El Presidente de la asociación de
información meteorológica
Euskaleguraldia

Vicelehendakari Primero y Consejero de
Seguridad.

Euskaleguraldia informazio
meteorologikoko elkartearen Presidentea